# AMESLARIOK... ZER BERRI?

Herri Ametsa Ikastola
*Ikastola txikia, familia handia*

ASTEKARIA: 52. alea | DATA: 2025/11/07

## GUREAN

### URMAELA

Aste honetan gure ikastolako urmaela garbitzen ibili gara. Naturan hazten gara eta natura zaintzen saiatzen gara. Gure kokapenak hainbat zentzutan aberasten digu eskuen artean daukagun hezkuntza proiektua. Urmaelak Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza zein Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan proiektuak garatzeko aukera ematen digu. Zuzenean urmaelari loturiko gaiak lantzeko erabili dugu txoko magiko hori, hala nola, ura, ekosistemak, fauna, flora... baina matematika, arte hezkuntza, euskara, ingelesa, abestiak, idazmena, irakurmena edo gisako edukiak ere lantzeko aukera ematen digu askotan. Ikasturtean zehar hainbat ekintza antolatzen dugu gure urmaelean.





## GURE INGURUAN

### BERTSO BAZKARIA

**NOIZ: AZAROAK 8**
**NON: ALTZAN**




## BAZENEKITEN?

- Gaur ere Etb-ko Biba Zuek saioko lagunak hurbildu direla guregana? Emaitzak laster ikusiko ditugu telebistan... Adi sare sozialetan!
- Gaur arratsaldeko 17:00etatik 19:30era AltzaLore Aisialdi Taldeak 6-17 urteko gazteentzat ekintza mordoa antolatuko du Larratxoko Patioan. Anima zaitezte!

**ZUEN PROPOSAMENAK HONA BIDALI:**
**melvira@herriametsa.eus**